



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Larrabetzuko Udala

Zerbitzu Orotarako Langile Lanposturako Lan-Poltsa

Lorailaren 4ko 177/2022 Alkatetza Dekretuaren bitartez Larrabetzuko Udalak zerbitzu orotarako langile lanposturako lan-poltsa eratzea erabaki zuen. Horren deialdia eta zuzentarauak eranskin moduan agertzen dira.

Larrabetzun, 2022ko bagilaren 6an. —Alkatea, Iñigo Gaztelu Bilbao

**LARRABETZUKO ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEEN LAN-POLTSA
SORTZEKO DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da lan-poltsa bat sortzea, lehiaketa bidezko sarrera libreko sistema orokorraren bidez, hainbat zerbitzutako beharginen plazetako lanpostu hutsak betetzeko, haien titularren aldi baterako ordezkapenak egiteko, edo aldi baterako beste premia batzuk asetzeko. Plaza horiek administrazio bereziko eskalan dagoz, zerbitzu berezien azpi-eskalan, zerbitzuko langileen klasean, eta AP ordainsari-taldearen oinarritzko ordainsariak dauzka. Gainera, indarrean dagoen legeriaren arabera eta Larrabetzuko Udalak hartu dituen edo hartzen dituen erabakien arabera egokitzen zaizkion ordainsari osagarriak edukiko ditu. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna bigarrena da.

Kontratazioak lan egiten duten lanpostuak aldi baterako betetzeko izango dira, gehiezez ere 11 hilabeterako aldi jarraituan, eta langileen lan-erregimenean.

Deialdia eta oinarriak udaletxe honetako iragarki ohoan, webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Iragarkiak udal honen webgunean eta iragarki-oholean argitaratuko dira.

Postuaren funtzioak udalaren organigrama funtzionalean momentu bakoitzean finkatzen direnak izango dira. Hauek dira momentu honetan:

- Bere nagusiak agintzen dizkion eta bere ofizioarekin eta kategoriarekin zerikusia duten lan guztiak egitea.

Bigarrena. — Oinarritzko printzipioak

Lan-poltsa hau osotzen duten langileen aukeraketan, publizitate, berdintasun, merezimendu, gaitasun, gardentasun eta espezialitate printzipioak errespetatuko dira.

Hirugarrena. — Hautagaien betekizunak

Hautapen-prozesu egokian parte hartu ahal izateko, betekizun hauek bete beharko dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko baten naziotasuna edukitzea edo, Europar Batasunak sinatutako eta Espainiar estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, beharginen zirkulazio librea aplikatu behar jakon estatu bateko nazionala izatea. Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko nazionalen ezkontideek be parte hartu ahal izango dute, zuzenbidez bananduta ez badaude, eta euren ondorengoek eta euren ezkontideen ondorengoek be bai, baldin eta, modu berean, zuzenbidez bananduta ez badaude, ondorengo horiek 21 urtetik beherakoak izanik edo adin hori baino zaharragoak baina mendetasuna edukita.
2. Hamasei urte beteta edukitzea eta erretiratzeko adinera ez heltzea.
3. Postuko eginkizunak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea, Desgaitutako pertsonak gizarteratzearen gaineko jorrailaren 7ko 13/1982 Legea aplikatu beharra gorabehera.
4. Diziplina-espeditente baten bitartez estatuko, autonomia-erkidegoko, tokiko edo instituzioetako zerbitzutik kanporatuta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
5. Ezintasun edo ezgaitasuneko legezko kausa batean ez egotea, administrazio publikoen zerbitzutan dauden pertsonen bateraezintasun kontuetan indarrean dagoen araudian aurreikusiak.
6. Eskola-ziurtagiria edo baliokidea edukitzea edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean hura eskuratzeko moduan egotea.
7. Euskara: HAE Eren 2. hizkuntza-eskakizuna, edo ondorio berdinak aitortzen zaizkion ziurtagiria. Oinarriotan ezarritako betekizunak eskaerak aurkezteko epea amaitzen dan egunean bete beharko dira, eta lanpostuaz jabetzeko egunean be bai.

**8. B1 gida-baimena edukitzea.**

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eta hartan parte hartu ahal izateko, nahikoa izango da hautagaiek euren eskaeran adieraztea exijitutako betekizunak betetzen dituela, betekizun horiek prozedurako zein fasetan frogatu behar diren gorabehera.

Laugarrena. — Eskaerak

Onartuak izateko eta, bidezkoa bada, hautaketa-proba egokietan parte hartzeko, hautagaiek eskabidea aurkeztu beharko dute, alkateari zuzendua, hautapen-prozesu egokian parte hartzea eskatzeko. Bertan, azaldu beharko dute hirugarren oinarrian exijitzen diren baldintza guztiak betetzen direla, eskaera aurkezteko eman den epea amaitzen den egunerako.

Hautagaiek ondokoak adierazi beharko dute:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Desgaitasunak dituzten pertsonak horrela adierazi beharko dute eskaeran

Eskabidearekin batera hau baino ez da sartuko:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, edo agiri baliokidearena, eskaera egilea atzerritarra bada.
- b) Prozesu honetan parte hartzeko exijitzen den titulazioaren fotokopia.
- c) Alegatu diren merezimenduen zerrenda: merezimenduok alegatzea.
- d) Modu berean, dauzkan euskara titulu edo ziurtagiriak sartuko dira agirien zerrendan, euskarako 1, 2, 3 edo 4. hizkuntz eskakizuna edo baliokidea edukitzea frogatzeko helburuz, agiriok ondoko lege hauetan aitatzen badira: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duena, 41. artikulua; zementariaren 9ko 297/2010 Dekretua, Hizkuntzetarako erreferentziako europar esparru komunaren mailakaz baliokidetzekoa; eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzen dituena. Ez dira ezelan be kontutan hartuko eskabideak aurkezteko epean alegatu ez diren merezimenduak.

Eskaerak aurkezteak berekin dakar datu pertsonalak (izen-abizenak eta telefonoa) eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei lagatzeko baimena ematea, lanpostu bat premiaz betetzeko.

Eskabideak ondo beteta egon behar dira. Hautagaiek adieraziko dute hirugarren oinarrian exijitutako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Eskabideak udal honen alkateari egingo jakoz eta bertako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren lekuetan, horiek gaituta egotekotan, edota bestela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua gaitutako lekuetan, 10 laneguneko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren osteko egunetik aurrera zenbatuta.

Ziurtagiri egokiaren bidez % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen duten hautagaiak beste hautagaien baldintza berdinetan onartuko dira.

Hautagaiek euren eskabideetan ematen dituzten datuei lotuta geratuko dira. Datuon aldaketa eskatzeko, idatzi bat egin beharko dute, arrazoiak azaltzen, eskabideak aurkezteko goian adierazi den epean. Epe hori amaituta, ez da holako eskaerarik onartuko.

Bosgarrena. — Hautagaien onarpena

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, udaleko presidenteak ebazpena emango du, eta onartu eta baztertu diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartutzat joko du. Zerrenda hori udalaren iragarki-oholean argitaratuko da, baita webgunean be, eta hautagaiak baztertzeko kausak adieraziko ditu. 10 egun baliouduneko epea emango da bazterketa horren aurka erreklametako eta bazterketa ekarri duten huts egiteak edo dokumentuak zuzentzeko.



Eskabidea epez kanpo aurkeztea zuzendu ezinezko akatsa da. Merezimenduak frogatzen dituzten agirietako akats edo omisioak be ezin dira zuzendu.

Erreklamaziorik egiten bada, behin betiko zerrenda onartzen duen administrazio egintza berean ebatziko da, behin-behineko zerrendarako adierazi den modu berean plazaratuko dena. Ebazpen horretan, modu berean, Epaimahai Kalifikatzailearen osaera eta alegatutako merezimenduen behin-behineko balorazioa adieraziko dira.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen hau eman ostean, edozein momentutan, baita probak egiten diren bitartean be, epaimahaiak ikusten badu edozein hautagaik aurkeztutako eskabidean edo erantsitako agirietan zehaztasunik eza dagoela edo faltsua dela, eta hori hautagaia baztertzeko modukoa bada, ezin izango da zuzendu, eta epaimahaiak Alkatetzari bazterketa agintzeko proposatuko dio.

Seigarrena. — Epaimahai Kalifikatzailea

1. Epaimahaiaren osaera urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Langile publikoen oinarrizko estatutuaren Legearen testu bat egina onetsi zuenak, 60. artikuluan adierazitakoaren arabera izan behar da. Epaimahaiak presidentea, idazkaria eta beste bost kide izango ditu. Epaimahaiaren osaera osoa hautagai guztiei jakinaraziko zaie onartuen ebazpenean.

2. Beti be, Epaimahai Kalifikatzaileak bere eginkizunak egiteko orduan aholkulariak ekartzea xedatu ahalko du. Aholkulariok euren berezitasun teknikoak bete baino ez dute egingo, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan azaldutakoa dela bide.

3. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu. Sektore publiko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan azaldutako inguruabarren bat badago, udalburuari jakinarazi behar da, eta hautagaien kideok ezeztatu ahalko dituzte, lege horren 24. artikuluan azaldutakoa dela bide, aurreko artikuluan adierazitako kausetakoaren bat jazotzen denean.

4. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek ahotsa eta botoa edukiko dute, Idazkaria salbuetsirik. Horrek batzarretan parte hartuko du hitz eginez, baina boto barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden botoen gehiengoaren bidez hartuko dira.

5. Epaimahai Kalifikatzailean, gainera, epaimahaiko idazkaritzarako, burutzarako eta bokalen titularrekin batera izendatu behar diren ordezkioak sartuko dira.

6. Beharrezkoa denean, epaimahaiak kolaboratzaileak, espezialistak eta laguntzaileak izendatu ahalko ditu, beti be bere zuzendaritza eta kontrol pean egongo direnak zuzenean, euren berezitasun teknikoak bete baino ez dituztenak egingo. Hitz egiteko eskubidea bai baina botoa emateko eskubiderik ez dute edukiko. Aholkulari eta espezialistak epaimahaiko kideen abstentzio eta errefusatze kausa berberen pean egongo dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluekin bat etorrira.

7. Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da osotu eta ezin izango du jardun bere kideen erdia (titularrek zein ordezkioak) ez badago.

8. Prozeduraren edozein momentutan Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietako batek ez dituela betetzen deialdian exijitutako betekizunak, deialditik baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman ostean. Egun berean lehiaketa deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio. Aurkitzen diren egitatezko okerrak edozein momentutan ongitu ahalko dira, ofizioz nahiz interesdunak eskatuta.

Zazpigarrena. — Hautapen-prozesua

Hautaketa prozesua merezimenduen balorazioko fase bakarrean egituratuko da; eta, gehienez ere, XX puntu lortu ahal izango dira, honako baremo honen arabera:

**Lehiaketa fasea****1. LAN ESPERIENZIA: 30 PUNTU**

Administrazio publikoan zerbitzu anitzetako langile edo peoi lanpostuan edo/eta enpresa pribatuan besteren kontura elektrizitate, iturgintza, igeltserotza, eraikuntza, lorezaintza, muntaketa edo mekanika sektoreetan emandako zerbitzuetan izandako lanbide-esperientziagatik, kategoria bereko edo antzeko lanpostuetan, deitutako lanpostuaren funtzio eta zeregin berdinekin edo antzekoekin; 0,5 lanaldi osoan lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu arte. Lanaldi osoan lan egin ez bada, puntuazioa murriztu egingo da lanaldiaren arabera.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat hartuko dira abenduaren 26ko 70/1978 Legean jasotakoak, administrazio publikoan alde aurreko zerbitzuak aitortzea dakartanak.

Larrabetzuko Udalean egindako zerbitzuak interesdunek alegatu beharko dituzte, baina ez egiaztatu. Administrazioak ofizioz zenbatuko ditu. Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzu-aldia administrazio bakoitzak horretarako duen ereduaren bidez egiaztatuko da. Nolanahi ere, lan egindako aldiak banakatu egin beharko dira, aldi horiei dagozkien Kidego edo Eskala, Azpieskala eta Maila edo Kategoria zehaztuz, baita lanaldiaren ehunekoa ere.

Enpresa pribatuan lanbide-esperientzia egiaztatzeko, nahitaez aurkeztu beharko dira lan-bizitzaren ziurtagiria eta bete duen lanpostua eta bete dituen eginkizunak egiaztatzen dituzten kontratuen kopia.

2. PRESTAKUNTZA: 18 PUNTU

2.1. Elektrizitatearen, iturgintzaren, igeltserotzaren, eraikuntzaren, lorezaintzaren edo mekanikaren adarrekin lotzen diren lanbide-heziketako titulazioak. Gehienez, 16 puntu arte.

— 2 puntu, erdi mailako zikloko titulu bakoitzagatik.

— 3 puntu, goi mailako zikloko titulu bakoitzagatik.

2.2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoetako eskoletan (IVAP, INAP, IEAP edo beste administrazio-eskola batzuk), nortasun juridiko publikoko zentroetan, lanpostuaren ezaugarriekin zuzenean lotutako prestakuntza-ikastaroetan emandako edo jasotako orduengatik, baldin eta ez badute lanpostua eskuratzeko eskatzen dena baino goi-mailako prestakuntza edo titulaziorik: 0,01 puntu ordu bakoitzagatik. Gehienez, 2 puntu arte.

Bederatzigarrena. — Prozesuaren emaitza

9.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu, eta Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaiak egiaztatutako merezimenduak baloratu ondoren, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onetsiko dira, eta baztertuen kasuan arrazoia zehaztu beharko da. Zerrenda horretan, onartutako hautagai bakoitzak lortutako puntuazioa jarriko da, eta iragarki-taula digitalean eta webgunean argitaratzeko aginduko da.

Interesdunek 10 egun baliouduneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita, bertan jasotako datuak zuzentzeko edo horiei buruzko alegazioak egiteko. Erreklamazioetan ezin izango da eskatu eskaeran alegatutakoa ez den bestelako merezimendurik. Epe hori igarota, Epaimahai Kalifikatzaileak, interesdunek aurkeztutako alegazioak ebatzi ostean, ebazpen-proposamena helaraziko dio Alkatetzari. Horren bidez, behin-betiko onetsiko da bitarteko funtzionarioak izendatzeko edo aldi baterako lan-kontratupeko langileak kontratatzeko lan-poltsa handitzea, eta hautagai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da.

9.2. Amaierako puntuazioa lortutako puntuazioen batura izango da, deialdi honen bosgarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera.

Berdinketa gertatuz gero, esperientziaren atalean lortutako puntuazio altuenaren arabera ezarriko da ordena. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, titulazio osagarriaren atalean lortutako puntuazio altuenera joko da; berdinketak jarraitzen badu, presta-



kuntza-ikastaroen atalean lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da ordena; azkenik, berdinketak jarraituz gero, zozketara joko da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (4/2005 Legeak emandako idazkeran), trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehen-tasuna administrazioko kidego, eskala eta kategorietan, baldin eta emakumeen ordezkari-tza % 40tik beherakoa bada. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexuagatiko bereizkeria eragin ez arren.

Hamargarrena. — Gorabeherak

Kalifikazio Epaimahaiari ahalmena ematen zaio sortzen diren zalantza guztiak argitzeko, eta hautapen prozesua era egokian burutu dadin beharrezko erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan eta legedi aplikagarri eta osagarrian aurreikusten ez diren kasu guztietan.

Hamaikagarrena. — Izendapenak

Poltsa honen bitartez asebate behar diren beharizanak bitarteko funtzionario izendatuak izateko aukeratu diren hautagaiei jakinaraziko jakez, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Langile publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu betegina onartu zuenak, 10. artikuluan azaldutako kasuetako edozeinetan. Izendatuak izan ostean, postuaren betebeharrak fideltasunez beteko dituela agindu edo zin egin beharko dute.

Lan-poltsak arauok bete beharko ditu:

11.1. Hautagaiak gehienez be bost egun balioduneko epea edukiko du, deialdia egiten denetik, hirugarren oinarrian exijitzen diren betekizunak betetzearen ziurtagiriak aurkezteko. Epe horretan aurkezten ez baditu, eskaintzari uko egiten diola ulertuko da eta izena eman dutenen zerrendako azkena izango da. Bi biderrez segidan uko egiten badu, poltsatik baztertu egingo da.

12.2. Eskaintzari uko egiteko arrazoi lez aldi baterako lan-ezintasuna edo amatasuna alegatzen badute, lan-poltsan hasieran zuen postua gordeko zaie. Hori alegatuz gero, zuzenbidean onartzen den edozein bitarteko erabili beharko da hori frogatzeko.

12.3. Bitarteko funtzionario izendatu direnak, lanpostua itxi ostean, lan-poltsan zeukan leku bera edukiko dute.

Hamabigarrena. — Lan-harremana ixtea, ezeztatzea eta azkentzea

Bitarteko funtzionarioak bere lanpostua itxiko du urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Langile Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bat egina onartu zuenak, 63. artikuluan aurreikusitako kausengatik, eta izendapena ekarri zuen kausa amaitzen denean

Izendapena kausa horietako batengatik ezeztatuko da:

- Bitartekotasunez okupatutako plaza karrerako funtzionario batek hornitzen duenean, arauz aurreikusita dauden hornikuntza sistemetak batekin.
- Gerora sortutako arrazoiengatik plaza amortizatzen denean.
- Udalak uste duenean plaza bitartekotasunez estaltzea ekarri zuen premiazko arrazoiak desagertu direla.

Hamairugarrena. — Oinarrien izaera loteslea

Oinarriok lotesleak dira udalarentzat, epaimahaiarentzat eta aukeraketa-probetan parte hartzen duten pertsonentzat. Oinarriak eta deialdiko nahiz epaimahaiaren jardunetik eratortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal dituzten interesdunek, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazten diren kasu, epe eta moduetan.



Oinarriok administrazio bideari amaiera ematen deutse. Euren kontra aukerako berazterte errekurtoa egin ahalko da Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu osteko egunetik zenbatuta.

Modu berean, nahi izan ezker, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean Administrazioarekiko Auzien Errekurtoa egin ahalko da, bi hileko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 30, 114.1.c) eta 112.3 artikuluetan, eta garagarriaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8, 10 eta 46. artikuluetan adierazitakoaren arabera. Interesdunek egokia eta bidezkoa den beste edozein errekurto jarri ahalko dute.